

2005eko uztaila

40. zenbakia

Aikor!

Leizorriko aldizkaria

Tindufetik Euskal Herrira; geldialdia, Loiun

Egaña eta Silveira – Angel Maria Gutierrez – Larrabetzu eta Lezamako jaiak



Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkartearen
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili,
Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47

e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Gaizka Eguskiza,
Mari Tere Onaindia, Amagoia
Guezuraga, Belen Gana, Pospolin eta
Aritz ta Nagel.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Juanxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier
Oruetxebarria, Oihana Astobeta,
Maripi Agirre, Jose Antonio Lekue,
Fernando Olabarrieta, Bestorrene,
Lezamako Mozoila, Itziar Mateos,
Juan Luis Goikoetxea, Jabi Agirre eta
LurdesPrudencio.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo eta Iñaki
Astorkiza

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka
Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-
9322

AIKOR! aldizkariak ez dau
bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen edota
eritxien erantzukizunik.




Eusko Jaurlaritza



Euzko Foru
Aldundia
Kultura Saria

diruz lagundutako aldizkaria



11 Andoni Egaña eta Xabier Silveira



26 Laiak Elkartea



23 Lezamako jaiak



12 Angel Maria Gutierrez



20 Larrabetzuko jaiak



28 Miamendi

AURKIBIDEA

- 4**Eritxia **5**Gutunak **6**Laburrak eta albisteak **10**Jaiak
11Gurean izan da... Andoni Egaña eta Xabier Silveira
12Angel Maria Gutierrez **13**Uda bakean izan dezaten
20Larrabetzuko jaiak **23**Lezamako jaiak **26**Laiak Emakumeen
alkartea **28**Baserri mundua... Miamendi **30**Musika
31Txorierrri ezagutu **32**Sukaldaritza
33Denborapasa **34**Agenda

Bertoko haziak



JOSE ANTONIO LEKUE
(Baserritarra)

Ez da denbora asko oraindik, baserri bakoitzak bere haziak erabiltzen zituela lantzen zuen ortuarirako eta bere txertoak egiten zituela nahi zituen frutarbolak lortzeko. Edo gehienez ere, inguruko mintegiren baten erosten zituela landareak, eta bertoko lurretara eta klimara egokituta egoten zirela.

Multinazionalen eta merkatuaren eraginarekin, ostera, hori dena aldatuz joan da eta orain ia dena erosi egiten da: haziak eta landareak. Kontuan izan, gaur egun merkaturatzen den hazirik gehienak hiru edo lau enpresa multinazionalen saltzen dituztela. Monsanto bezalako munstroak. Hauexek dira, gainera, hazi transgenikoak merkaturatzen dituztenak ere bai.

“Merkatuaren” exigentziei erantzuteko aldatu dira toma-tea, piperra, porrua, zerba, letxuga... haziak. Eta ez hori bakarrik, frutarbola motak ere aldatu egin ditugu: ia-ia ahaztuta geratu dira lehenagoko bost-kantoi, errexil, urtebete sagarrak... eta baita madari eta makatzak ere. Dirudienez, multinazionalen edota kanpotik ekarritako hazi eta landareek fruitu edo barazki borobilagoa, beraz politagoa eta koloretsuagoa ematen dute.

Baserrira dedikatzen hasi nintzeneko ikastaroetan ohartu nintzen bakoitzak bere mintegi edo simentaraxoa egin deza-keela, eta produkzio ekologikorako garrantzitsua denaz: apurka-apurka erabiltzen ditugun produktuak hazitik bertatik ekologikoak izan daitezkeela. Egia esaten badut, ikastaro horien ondoren auzoko baserriko emakume bat dut nire mais-trarik onena, berak irakatsi baitit praktikan haziak noiz batu, nola lehortu, non gorde, noiz erein...

Eta egia esaten badut, egin ditudan proben ondorioa bestelakoa da. Gure tomate, sagar eta abar kanpotik ekarritakoak besteko politak eta koloretsuak dira. Diferenteak, baina politak. Eta oso onak, gainera.

Uste dut topiko askorekin bizi garela eta “merkatuak” berak nahi duena egiten duela gure kontsumo ohiturekin. Eskerrak, astiro bada ere, konturatuz goazela eta gaur egun bertoko haziak lortzeko bide desberdinak daudela. Horietariko bat Euskal Herriko Hazien Sarea da.

Eta Txorierriko haziak zer? Ezin ditugu babestu? Ezin dugu baserritar zaharren haziakikultura horren transmisioa lortu?

Aquilino Polaino... erre bedi!

Aurtengo San Joan bezperan, gure herriko

tradizino pagano-zahar-rean, magiaz beteriko gau labur-argitsu horretan, Zorritzketanek aukera emon euskun erretzeko gorrotatzen edo ikusi ezin doguzan edo kaltegarriak diran gauzak, materialak edo materia

bakoak, mundukoak zein espiritualak, benetakoak ala sinbolikoak, Lezaman suaren inguruan egiten dan “errito” jendetsu-arrakastatsu horretan.

Eta ni, suaren purifikazino magikoaren bila hurreratu nintzan sutsu, handik garbiago eta indartsuago etxeratuko nintzalakoan. Erre nebazan lehenengo neure gauzatxo batzuk isil-isilean, norberak baino ezagutzen ez dauzan egunerokotasunean buruan bueltaka ekiten eta une batzuk haserreago biziazoten deuskuezan horreetako pentsakera edo sentikera txiki batzuk.

Eta nik, erre neban, baita be, eta oraingoan modu publikoan eta zoli esanda, aspaldi honetan komunikabideen erruz ezagun bihurtu dan pertsonaia, bere profesino arlokoak edo ingurukoak lehendik ezagutzen genduana, eta ez bere aportazino intelektual disdiratsu edo aurrerakoiakaitik hain zuzen be. Erre gura izan dot, gizartean pil-pilean dagoen gai baten inguruan adierazpen kaltegarriak bota dauzelako, bapere oinarri bakoak, ezelango datu zientifiko barik, bere aurreiritxi eta buru-patologiek eraginda seguruenik. Kaltegarriak dira, oso, horrelako adierazpen publikoak, ez bakarrik (eta batez be) giza kolektibo batentzako eta euren eskubideentzako, baita gizarte osoarentzako be, pentsakera gaixo batzuk nahastau egiten diralako.

Hauxe esan neban papera sutara bota aurretik: “Nik erreko neuke Aquilino Polaino, psikiatra eta psikopatologiako irakaslea, esan dauelako homosexualak gaixoak direla. Eta hori esanda kalte handia eragin deusolako giza talde horri eta gizarteari, berez oso duina eta inportantea dan bere profesino desprestigiatu dauelako, bere ezjakintasuna be adierazo dauelako, eta besteei gaixo-etiketak ipiniz bereak erakutsi dauzelako. Beraz, Aquilino Polaino eta bere gaixotasunak —sexufobia, homofobia, sasiadituaren ezjakintasuna, intolerantzia eta alkartasun eza—, erre bitez!



FERNANDO OLABARRIETA
(Homofilikoa)

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikori!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

Lezama. Aretxalde = Kamioialde

Nork pentsatuko zuen toponimia hain aldakorra izango zenik. Lezaman laster, Deustuko tomateekin jazo zena suertatuko da. Beharbada, gerokoek abestiren batez gogoratuko dute Lezaman bazegoela haritzez beteriko lur sail eder bat (betidanik Aretxalde izenez ezaguna).

Aurrerantzean eta laster Aretxalde barik Kamioialde bihurtuko da, Lurralde Plana (LPP) diseinatu dutenek horrela nahi izan dutelako.

Bilbo Metropoliaren Lurralde Planak Aretxalden 1.200.000 m2 arte lur kalifikatzen du, helburu nagusi honekin: garraio sail logistikoa (Kamioi aparkaleku integrala) eta produkzio industriak sortzea.

Kontuan izan, haritzez aparte, 100 etxe inguru (tartean baserri piloak) kokaturik daudela industrial bezala kalifikaturiko lurretan.

Udaletik, zoritxarrez, ez dugu informaziorik jaso, eta urte bi hauetan egin diren batzar publikoak lehen Sasoiz plataformari eta oraintsu sortutako Lezama Bizirik Koordinakundeari esker egin izan dira.

Lurra ordenatu eta planak egin behar direla ez dago dudarik, baina triskantzarik ez! Eta Lezama arrisku bizian dago.

Goitik eta behetik jasaten dugun kutsadurari (hegazkin, errepide eta korridoreko trafikoari) ehunka edo milaka

kamioien aparkalekua eta joan-etorria batzen badiogu, gureak egin du: Aretxalde ez ezik, Lezama eta Txorierri bera ere ukiturik suertatuko dira.

Badakigu Jaurilaritzaren azken tramieta falta dela plana onartzeko. Eta gainera datorkigun triskantzaz norbait jabetuko delako itxaropen izpi bat badaukat, berau ekiditeko; bestela jarraitu beharko kantatzen: “Ez, ez dut nahi... holako zibilizaziorik...”

*Jabi Agirre, Lezama Bizirik
Koordinakunde-kidea*

Zorionak Goitioltza!

Biharamuna da, astelehena da. Agoa siku, tripak eta ingurukoak juxtu-juxtu, burua astun.... baina bihotzean poza eta eskerrona. Bilborantza noa errekadutxuak egiten eta... kotxea lotu eta kamino ertzean dagoen tabernatxubatean, kafea hartuz bide batez, eskutitz hau eskribidutea erabagi dot, behar dot eskribidu.

Zorionak Goitioltza, zorionak Goitioltzako gazteak! Jai zoragarriak antolatu dozuezalako, danantzat, edo

edonork ondo pasetako jaiak izan direlako, benetan herrikoia izan direlako, ekitaldi xumeak eta goi mailakoak prepareu dozuezalako, beste gazte asko beekarri dozuezalako bazkarira eta laguntzera, jaiagaz batera aldarrikapena be egin dozuelako, auzo txiki baina indartsu honen harrotasuna zarielako, deabruagaz edo jainko-jainkosaren bategaz paktua eginez eguraldi ederra ekarri dozuelako, giro alaiean ondo paseu eta behar asko be egin dozuela-

ko, astelehenean oste eta guzti be hor ikusi zaituedalako beharrean petretxo (beste hitz bat ipiniko nuke -gauza, tretxu) guztiak batzen... Udaleko obserbadoreren bat egon bada, seguru nago zuen ejenplua eta eredia esportatu gurako dauela herrira eta inguruetara... Hurrengoan be bai. Datorren urterarte!

Joxepo Ajeandia

Hainbat proiektu jarri dira martxan Derion

Urbanizazio lanez gainera, Uribe parkea egiten dabilta eta etxebizitza berriak eraikiko dira, besteak beste

Uribe parkea proiekturik inportanteena izango da Deriorentzat, “izan ere, herritarrek horren zain izan dira denbora luzean”, azaldu digute Udaletik. Parkeak ia 6 hektarea izango ditu eta bertan bidezidorrak, jolas-gune bi eta lorategiak jarriko dira. Obra Foru Aldundiaren eta Udalaren artean egingo da eta 1.167.287,16 euroko inbertsioa izango du. Parkea martxorako bukatuta egongo dela uste dute.

Goikoetxe kalearen atzeko aldean urbanizazio lanak egiten dabilta eta bertan beste kale bat sortuko dute: Santiago etorbidea. “Era horretan lortuko da parke teknologikorantz doazen autoak Goikoetxe kaletik pasatu beharrik ez izatea. Lanak amaitu ondoren, Goikoetxea hori oinezkoentzat jartzeko asmoa dugu, hau da, auzokideek erabil dezaten”. Horrezaz gainera, 39 etxebizitza egingo dira bloke bitan banatuta; proiektu horren ondorioz, Aldekoneko semaforo guztiak kendu egingo dira eta trafikoa goiko aldean jarriko den errotonda baten bidez erregulatuko da. Urbanizazio lanek 1.105.870,34 euroko inbertsioa dute.

Txozna aldean ere lanean dabilta. Pilotalekuaren eta errotondaren arteko bidea urbanizatu egingo da eta Almazene kalearen lehenengo zatia sortuko dute; behar horietan 416.087,73 euro gastatuko dira.

“Beste proiektu bat ILS-Gernikako Arbola da eta Eusko Jaurlaritzako Izartu II programaren barruan dago”, adierazi digute. Inguru horretan, Espainiako Aireko Armadak aireportua zaintzeko etxola bat



zuen eta Udalak lurak erosi ditu; lur horiek atondu, eta errotonda bat egingo da Mungialde etorbidearen eta Gernikako Arbola kalearen artean. Azkeneko kale hori urbanizatu egingo da eta espaloiak Sollube kaleraino handituko dira. Lanek 425.000 euroko aurrekontua dute.

Kiroldegiko igeritokiko estalkia konpondu egingo dute abuztuan, eta beharretan 116.588,59 euro inbertituko dira. “Eta laster igogailua jarriko da instalazioetan”. Era berean, futbol zelaiaren ureztatze-sistema aldatzeko lanak martxan daude eta abuztuan bukatuko dira. Haur eskola han-

ditzeko lehenengo fasea ere hasi da, eta irailerako amaituko dira beharrak.

Larrialdietarako pisua

Derioko Udalak larrialdietarako pisu bat atondu du herrian, “etxean ezbeharren bat izanez gero, herritarrek bertara joateko aukera dute”. Pisuak hiru gela, egongela bat eta sukalde bat ditu eta 7 lagunentzako lekua dago bertan. Beste alde batetik, aipatu beharra dago Larrabarri baserria egokitzeko lanak bukatutzat jo dituztela; proiektu hori Izartu II programaren barruan jorratu da.

Graffiti tailerra Derion

Azken hilabeteotan, Derioko gazteek artea lantzeko aukera izan dute herrian, Arte Urbano taldearen eskutik. Horrela, bada, apirilean Graffiti tailerra jarri zuten martxan, eta aspektu teorikoak jorratu zituzten lehenengo klaseetan: zirriborroak egin eta egin, perspektiba zaindu... Eta maiatzean bertikalera salto egin zuten, hau da, Bilbobarri zaharreko adreiluzko ormetan margotu zituzten graffitiak. Tailerrera

hurbildutakoak asko izan badira ere, hamar ikasle leial izan ditu kurtsoak, irakasle bik zuzenduta. Udan deskantsu txiki bat hartu, eta irailean hasiko da berriro ikastaroa. Izan ere, taldekide batzuek badute lana abuztuan: herriko Gaztelekua eta tren geltokiko lurpeko pasabidea apaintzea.

Testua: Bestorrene



Euskaraz blai kanpaina 514 gurasoengana ailegatu da

Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Euskaraz blai kanpaina zabaldu du, Alkarbide Bizkaiko euskara zerbitzuen koordinazio gunearen bitartez. Kanpainak seme-alabak euskaraz haztearen garrantziaz kontzientziaztea du helburu eta 2004. urtean jaiotako 218 umeen gurasoei, eta hiru urte bitarteko 396 umeen gurasoei aile-

gatu zaie. Gutun baten bidez, Euskara Zerbitzuak hainbat aholku eman dizkie, hurrengo egoeren aurrean nola jokatu azalduz: guraso biek euskararik ez badakite, gurasoetako batek badaki euskaraz, eta guraso euskaldunak badira. Horrezaz gainera, haur txikiei esponja bana bidali zaie, eta baloi puzgarri bana gainerakoei.

Hegaldi-simulagailua Sondikan

Sondikako aireportu zaharreko hegaldi-simulagailua jendaurrean zabalduko da laster, instalazioko obrak ia-ia amaituta daude. Simulagailua Kantauri Itsasoko ertzean dagoen lehenengoa izango da eta Boeing 737 hegazkin bateko kabinan jarri dute.

Erabiltzaileek nabigazio-gutunez buruzko ezagupenak hartu eta praktikan jartzeko aukera edukiko dute bertan. Horrezaz gainera, aireratze eta lurartze simulazioak ere egingo dituzte, eta aireontziaren mekanika aztertuko dute, besteak beste. Enpresak ordu bateko saioak eskainiko dio publikoari eta saio bakoi-tzak 65 euro balio izango du.

Txalaparta, dultzaina eta alboka eskola Bertokon

Zamudioko Bertoko Soinu Tresnen Elkarrekin txalaparta, dultzaina eta alboka eskola bere hezkuntza-eskaintzan sartu du, "izan ere, horrela egiteko eskari asko jaso ditugu", esan digute. Ikasgai berriez gain, trikitixa eta pandero eskolak hartzeko aukera ere badago bertan. Aurrematrikula egiteko epea irailaren 1ean hasiko da.

Interesatuak telefono hauetara dei dezakete: 686589338 eta 652778045.

Areto-futboleko nesken taldea Pozgarrira

Txorierriko areto-futboleko nesken taldea duela urte bi sortu zen eta ekipoaren ardura Zamudioko Klubak hartu zuen. Baina neskak ez dira pozik ibili bertan izandako egoerarekin, eta aurten Derioko Pozgarri taldean sartzea erabaki dute. "Pozgarrik eskaintzen dizkigun baldintzak askoz hobeak dira", esan digute.

Boliviak eta Lezamak bat egin dute



Ekainaren 11n, senidetasun-jaialdia izan zen Lezaman, bertoko Oxangoiti kultur elkarteak eta herrian bizi diren boliviarrak antolatuta. Jaialdian 300 bat lagunek parte hartu zuten, eta egun osoan zehar, hainbat ekitaldi egon ziren: Boliviako banderari eta ikurriñari aurraskua, dantzak, bazkaria eta herri kirolak, besteak beste. “Oso pozik gaude eta eskerrak eman nahi dizkiegu

lezamar guztiei”, esan digu Nemesio de Joaquinek, UKAMAU Bolivia elkartearen presidenteak, “Beste leku batzuetan baztertu egiten zaigu, baina oraingo honetan herrian bertokotu egin gaituzte. Senidetasuna ez da faltsua izan, benetakoa izan da”. Txorierrin 92 boliviarr bizi dira: 15 Sondikan, 14 Derion, 7 Zamudion, 47 Lezaman eta 9 Larrabetzun, hain zuzen ere.

Betagarri musika taldea Santa Kurtze jaietan

Irailaren 14tik 18ra bitartean, Santa Kurtze jaiak izango dira Sondikan, eta bertoko Udalak herritar guztiei zuzendutako hainbat ekitaldi antolatu ditu. Ekitaldiok Larrabarrena parkean izango dira.

Irailaren 14a, asteazkena

10:30: Kalejira, trikitilariak girotuta
11:30: Meza, Santa Kurtze ermitan, eta ohorezko aurraskua
18:30: Pirritx eta Porrotx pailazoak

Irailaren 16a, ostirala

21:00: Txorizo jana
24:00: Berbena, Amaiur taldearekin

Irailaren 17a, larunbata

10:00: Kalejira, Elaiak txistulari taldeak girotuta
10:30etik 14,30era: Umeentzako jolas parkea
11:00: Kalejira, Iturriotz fanfarrearekin
17:00: Futbol partida
19:30: Pailazoak, Azkona taldearen eskutik
23:00: Kontzertua: Cinco Contra eta Betagarri

Irailaren 18a, igandea

10:00: Kalejira, Elaiak txistulari-taldearekin
10:30-14:30: Umeentzako jolas parkea
11:00: Kalejira, Iturriotz fanfarreak girotuta
18:00: Dantza agerraldia, Gorantzaileak dantza taldearen eskutik

Gazte Eguna, Larrabetzun

Gazte Eguna 05 irailaren 30ean ospatuko da Larrabetzun, Hori Bai gaztetxeak antolatuta. Baina aurreko egunetan ere hainbat ekitaldi izango dira

Uztailaren 27a

17:00: Kafe tertulia

22:00: Kantautorea, Hori Bain

Uztailaren 28a

17:00: Azoka txikia

18:00: Umeentzako jolasak

21:30: Bakarriketa saioa, Hori Bain

Uztailaren 30

11:30: Txistulariak

14:30: Herri bazkaria

18:00: Gaztetxe eta gazte asanbladen arteko olinpiadak

22:00: Manifestazioa

00:00: Kontzertuak: Nuuk-At, Soziedad

Alkoholika eta Tuboskapi



Autorik gabe Sondikan

Irailaren 22an, Nire autorik gabeko Sondika ekitaldia egingo da Sabino Arana kalean. Arratsaldeko 5etatik aurrera hainbat ekintza izango dira bertan: bide-heziketa eta ingurugiro lantegiak, jolas parkea, informazio puntuak, txirrundulari ibilaldia eta txorizo-jana.

Mugikortasun ekintzak Lezaman eta Larrabetzun

Irailaren 16tik 22ra bitartean, Mugikortasun Astea ospatuko da Larrabetzun, eta uritar guztiei zuzendutako hainbat ekitaldi antolatu dituzte Udalak, Ihobek eta Udal Talde 21ek. Ekitaldi horien artean, auto hibrido baten erakusketa izango da plazan, hilaren 16an, 17:00etatik aurrera; hilaren 19tik 21era arte, berriz, patinatzen ikasteko ikastaroa egingo dute eskolako patioan, 18:00etatik 20:00etara (ikastaroan parte hartzeko, izena eman behar da hilaren 12tik 14ra); azkenik, hilaren 22an, 17:00etatik aurrera, jaialdia egongo da plazan, Kotxerik Gabeko Eguna ospatzeko.

Beste alde batetik, Lezaman ere umeentzako hainbat ekitaldi egingo dira hilaren 21ean: mugikortasunari buruzko tailerrak izango dira eta Hortzmuga taldeak *Neumai-koak* kale-antzezlanak aurkeztuko du.



San Migel jaiak, Derion

Irailaren 23a, barikua

19:00: Txosnen irekiera
19:30: Kalejira, Sama Siku fanfarrearekin
21:00: Pregoia eta txupinazoa
21:15: Txitxi-burruntzia eta sangria
20:00: Mozorro txapelketa
00:00: Berbena, Lisker taldearekin.
Atsedendian, show erotikoa
05:00: Diskoteka

Irailaren 24a, larunbata

10:00: Goizeko traka



11:00: Umeentzako jolas-parkea
11:30: Paella, tortilla eta postre txapelketa
13:00: The Mckensy's Clan Band taldearen musika emanaldia
14:00: Paella, tortilla eta postreen aurkezpina
15:00: Herri bazkaria
16:00: Bazkalondoa, umorista batek girotuta
18:00: The Mckensy's Clan Band taldearen musika emanaldia
00:00: Berbena Nuevo Talisman taldearekin
02:00: Traka
03:00: Berbena, Nuevo Talisman taldearekin
05:00: Diskoteka

Irailaren 25a, igandea

08:00: Sokamuturra
10:00: Goizeko traka
13:00: Los Txikis taldea
16:00: Zezenketa lehiaketa
18:00: Zezenak
20:00: Diskoteka

Irailaren 29a, osteguna

17:00: Umeen arratsaldea
19:00: Jubilatuentzako luntxa
19:30: Diskoteka

Irailaren 30a, ostirala

19:30: Sagardoan egositako txorizoa
21:00: Karaokea
00:00: Berbena, Kresala taldearekin

Derioko San Esteban jaiak

Abuztuaren 3a, asteazkena

12:00: Meza Nagusia
12:45: Luntxa
14:00: Paella txapelketa
18:00: Erromeria, Dantza Alai taldearekin
19:00: Tortillen aurkezpina

04:00: Diskoteka

Urriaren 1a, larunbata

10:30: II. Futbito Txapelketa
11:00: Umeen arteko pilota partiden finalak
14:00: Indaba jana
17:30: Partida, ezkongaiak ezkonduen aurka
00:00: Kontzertua: 5 Contra El Calvo y The Bond Scott Band
01:30: Konpartsei sari banaketa
03:30: Diskoteka

Urriaren 2a, igandea

10:30: II. Futbito txapelketa
14:00: Kanapeak, plazan
17:00: Dantza agerraldia, Lainomendi taldearen eskutik
20:00: Txokolatada. Diskoteka
23:00: Txupina eta jaien amaiera

Santi Mami jaiak, Zamudion eta Derion

Abuztuaren 16a, asteartea

18:00: Txupin Nagusia
18:30: Umeentzako jolasak, Azkona taldearen eskutik
21:00: Sardina jana
22:30: Erromeria, Los 5 Bilbainos taldearekin

Abuztuaren 17a, asteazkena

10:00: Kalejira, txistulariekin. Goiz osoan, Bertoko taldearen emanaldia
12:00: Meza, ermitan
14:00: Sukalkien aurkezpina
16:00: Puzgarriak
16:30: XIII. Mus arin-arina

21:00: Tortillen aurkezpina
22:30: Gau-dantza, Drint Drots taldearekin

Abuztuaren 18a, osteguna


10:00: Kalejira, txistulariekin. Goiz osoan, Bertoko taldearen emanaldia
12:00: Meza, ermitan
13:00: Nagusientzako omenaldia
14:00: Marmitakoaren aurkezpina
18:30: Pottokak, basurde-harrapaketa eta umeentzako zekorketa, Gorritiren eskutik
21:00: Txitxi-burruntzia
22:00: Gau-dantza, Arizgoiti taldearekin
00:00: Sorginaren erretzea eta txokolatada



Andoni Egaña eta Xabier Silveira, bertsolariak

“Leku batzuetan lorak bezala sentitzen gara”

Uztailaren 9an eta 10ean Lezamako Goitioltza auzoko jaiak izan ziran eta domeka arrastian bertso saioa egon zan honako bertsolariokaz: Andoni Egaña, Unai Iturriaga, J.M. Irazu eta Xabier Silveira. Gai jartzailea Arkaitz Estiballes izan zan. Andoni eta Xabierri elkarrizketa txikitxo bat egin dautsegu.



Andoni Egaña

Zelan hasi zinien bertsolaritzan?

Andoni: Nire kabuz, 19 urtegaz edo. Asko gustetan jatan Amuriza, orduko txapelduna, txundituta izten ninduan; irratiz segitzen neban, eta buruz ikasten nebazan bere bertsoak.

Xabier: Ni ikastolan hasi nintzan, bertso eskolan, baina familian beti egon da bertso-zaletasuna, bai amaren aldetik, baita aitaren aldetik ere.

Zein saio duzue gogokoena?

A: Berdin jat, danak ditut gustuko. Printzipioz txapelketak ez jataz gustetan, baina prestaketak bai, lagunekaz egiten dodaz eta.

X: Nik bertso bazkariak eta bertso afariak. Baina niri, oster, txapelketak asko gustetan jataz, tentsio hori gustuko dot.

Zenbat bertsolari mota dagoz zuen ustez?

Andoni: “Bertsolaritzan 19 urtegaz hasi nintzan. Amurizak txundituta izten ninduan garai hartan”

A: Asko. Orijinaltasunaren bila joaten dira batzuk, eta beste batzuk jendeak espero dauanaren bila. Desbardinak dira. Nire ustez oreka bilatu behar da.

X: Bertso eskoletan ikasitakoak, beren kabuz ikasitakoak... Batzuek asko ikasi dabe, baina gero komunikatzeko gaitasun mugatua daukie.

Zelan uztartzen dituzue bertsolaritza, erre-tzea eta kirola?

A: Ez dago uztartu beharrik. Asuntua astiroago joatea da. Ni maratoniak egiten hasi naz eta ez dautsot erretzeari itzi. Medikuek esan dauste erretzen dodalako ezin nazela lesionatu. Gainera, txarra izateko eskubidea aldarrikatu behar dogu. Garrantzi-tsuena parte hartzea da, eta ez kriston markak egitea.

X: Nik ez daukat arazorik, ez dot kirolak egiten eta.

Gustatu jatzue Goitioltzako giroa?

A eta X: Bai, oso giro ederra aurkitu dogu eta jendearen jarrera oso ona izan da. Jende

Xabier: “Txapelketak asko gustetan jataz, tentsio hori gustuko dot”

asko egon da, danak jesarrita eta parte hartzen. Beste leku batzuetan “lorak bezala” sentitzen gara, egitaraua betetzeko egongo bagina bezala.

Amaitzeko, euskaldun gehienon moduan txirrindularitza zaleak zariela uste dugu-nez, eta oraindino lehenengo astea bakarrik jokatu danez, Tourreko podiuma zein izango dan itaunduko dautsuegu:

A: 1.a Armstrong, 2.a Ullrich eta 3.a Vinokourov.

X: 1.a Armstrong, 2.a Ullrich eta 3.a Heras Egia esan, ez dozue asko arriskatu, gaurko bertso saioan askoz orijinalagoak izan zarie.

Egia esan, ez dozue asko arriskatu, gaurko bertso saioan askoz orijinalagoak izan zarie.

Testua eta argazkiak: Lezamako Mozoilola



Xabier Silveira

“Kulturismoak egunero eskatzen dizu sakrifizioa”

Euskaldunok gorputz handikoak omen gara, eta txorierritar batek horixe utzi du agerian. Izan ere, Angel Maria Gutierrez derioztarrak maiatzean Gernikan egindako Euskadiko Kulturismo Txapelketan bigarren postua eskuratu du. Kulturismoa oso kirol gogorra dela aitortu du, hala ere, datorren urtean txapelaren bila joango da.



Testua eta argazkia: Gaizka Eguskiza

Noiz eta nola hasi zinen kulturismoan?

Hogei urte nituela futboleko jokatzeari utzi, eta gimnasioan hasi nintzen sasoi onean izateko. Zaletasuna gero eta handiago egin zen eta hementxe gaude.

Zer da gehien atsegin duzuna?

Kirol horrek egunero eskatzen duen sakrifizioa. Kulturismoa maratonia bezalakoa da. Egunero landu behar duzu.

Zergatik egiten duzu, sasoiaren egoteagatik edo estetika-erregatik?

Hasiera batean, kirola egiteagatik, baina gero kaletik ikusten ez diren giharrak dauzkazula konturatzen zara eta horrek motibatu egiten zaitu.

Non entrenatzen duzu?

Derion hasi nintzen, gimnasio batean eta gero kiroldegian, baina hori ere txiki geratu zitzaidan eta Sondikako kiroldegiko gimnasia etorri nintzen maila altuago baten bila, hau da, Txorierrin eta Bilbo inguruko kulturismo arloan dagoen gimnasiorik garrantzitsuenara. Euskadiko txapelduna izan den Javier Perez dago bertan eta primeran irakasten du.

Zelan entrenatzen duzu?

Lehiaketan arabera. Lehiaketarik ez badago, gihar-bolumena handitzeari ekiten diot. Horretarako, pisuak altxatzen ditut. Gainera, 1,5 kilo haragi eta kilo erdi karbohidrato jan behar dut egunero, baita gehigarriak, irabikiak, platanak eta entsaladak ere. Azken hauek, batez

*“Zazpi edo zortzi aldiz
jan behar dut egunero”*

*“Argi dago nire gorputza
ez dela normala baina
zergatik ez da
osasuntsua izango?”*

ere, gauez hartzen ditut. Zazpi edo zortzi aldiz jaten dut egunero.

Beste alde batetik, lehiaketaren aurreko

bost hilabeteetan

zorrotzago bihurtzen

ordu ematen ditut

ordu pisuekin eta

ariketarik egiten). Ja

ruak murriztu, e

areagotzen ditut.

Beharrezkoa al da

minak eta osagarri

hartzea?

Bai, egiten dudana

eguneroko esfor-

tzua pertsona

arrunt batena

baino askoz handi

goa baita.

Baina bitaminak

du dopinga esan n

Nire ustez, doping

tietan dago. Bain

zentsudunek dak

dela eta zure biz

kuan jartzen

Exijentzien arabera

ren erabilera zab

Diru asko irabazte

agian, merezi dizu

horri buruz asko

ten da eta nik uste dut jendea gezurtia ala bekaiztia dela. Oreaki eutsi behar diozu bai ariketak egitean, baita janarian ere. Dena dela, doping azterketak pasatu behar ditugu txapelketen ondoren.

Zer esango zenieke kulturismoa osasuntsua ez dela esaten dutenei?

Osasuntsua ez dena, ezer ez egitea dela esango nieke. Argi dago nire gorputza ez dela normala, baina zergatik ez da osasuntsua izango? Lau hilabeterik behin analisiak egiten ditut eta primeran nabil. Norbaitek arrarotzat hartu ahal izango nau, baina zergatik ez da arraroa bera izango? Bai, osasuntsua da kulturismoa egitea.

Baina zahartzean arazoak sortzen



, baina ez da egia.

aterako, 57 urteko

. Bere gihar-bolumen-

ski, gazteena baino

agoa da, baina ikara-

rrizko gorputza

lauka. Denboraren

poderioz, giharra ez

da koipe bihurt-

zen.

Kulturismoaren

moda pasatuta,

zein da gaur egungo

skal Herrian?

mila gutxi dago;

ordea, oso altua da.

merikarren parean

ude. Gaur egun gel-

dago kulturismoa

errian. Gizarteak ez

onez ikusten eta

eza nabarmena da.

oso kirol gogorra da

ari ez zaio sakrifika-

atzen. Niri bai, eta

k nire ondoan dau-

skerrak eman nahi

Fitxa pertsonala

Izena: Angel María Gutiérrez Vicente

Jaitorria: Derio

Jaiotze-data: 1977-5-7

Pisua: 97 kilo (lehiaketetan 90 kilo)

Altuera: 1,75 metro

Lana: Mekanizazio tailer batean

Palmaresa: Maiatzean, Donostian laugarren postua Espainiako Iparraldeko Txapeketan

Maiatzean, Gernikan bigarren postua Euskadiko Txapeketan

dizkiet: Javier Perez entrenatzaileari, gimnasioko kideei, senideei eta batez ere, amari.

Zertan datza txapelketa bat?

Bi zatik osatzen dute. Lehenengoan gorputzik onena bilatzen da lehiakideen artean, eta gorputzeko atalen arteko oreka eta koipe eza hartzen dira kontuan. Atal horretan erabakitzen da irabazlearen izena. Bigarrenean, koreografia prestatu behar dugu jende aurrean antzezteko. Bertan geure gorputzak erakusteko aprobetxatzen dugu.

Euskadiko txapeldunordea geratu zara.

Pozik emaitzarekin?

Oso pozik nago. Parte hartu dudana lehenengo aldia izan da eta irabazleengandik gertu egon naiz. Emaitza onek zaletasuna pizten dute, baita hurrengo urtean hobeto egiteko grina ere.

Zeintzuk dira zure helburuak?

Espainiako Txapelketa irabazi nahiko nuke. Europakoa irabaztea bezalakoa izango litzateke, Estatuan mailarik altuena baitago. Hala edo nola, datorren urtean Euskadiko zein Espainiako Iparraldeko Txapelketetan parte hartuko dut eta atzerriara joatea ere gustatuko litzaidake.

Uda bakean izan dezaten

Uztailaren 9an eta 11n, Saharako 470 ume Loiuko aireportura heldu ziren, udako oporrek Euskal Herrian pasatzeko. Oporretan hartuko dituzten familiekin elkar-
tzeko bidaia egin baino lehen, herriko pilotalekuan atsedena hartu, eta indarrak
berritu zituzten.

Shlek (orain zortzi urte etorri zen Sondikara, bertan bizi izatera. Umeei laguntzeko progra-
man parte hartzen du)

“Bakearen eta elkarrizketaren aldeko apustua egiten dugu”

Azaldu, mesedez, zein egoeratan den Sahara.

Sahara Espainiaren kolonia izan zen mende
erdian, eta 1975ean Mauritania eta
Marokoren artean banandu zuen lurraldea.
Fronte Polisarioa hiruzpalau urte lehenago
eratu zen.

Gerra hasi eta Mauritaniak berehala utzi
zituen armak; Marokok Mendebaldeko
Sahara okupatu zuen eta iheslarien kanpa-
mentuak ezarri behar izan ziren Aljeriako
lurretan.

1991n su-etena sinatu zen, baina oraindik
da erreferendumik egin, Marokok ez du
ko onartzen Espainiak 1974an eginda
errola —bertan 180.000 saharar inguru b-
tzen ziren—. Gainera, marokoar asko sa-
har gisa errolatu ditu, inoiz erreferendum
egiten bada, beraren aldeko emaitza lort-
ko.

Sahararrok badugu erreferendum hori le-
nago edo geroago egingo den itzaropen
izan ere, bakearen eta elkarrizketaren al-
deko apustua egiten dugu. Gerrak ez di-
beste ezertarako balio izan, ezpa
Marokori jakinarazteko geure lurralde
berreskuratu nahi dugula.

Zein interes ditu Marokok Saharan?

Fos Bu-craako fosfato-meatzea eta
arrantza-tokia. Aberastasun handia dago
Saharan, baina ez da esplotatzen.

**Aaiun hiriburuko matxinadak erakutsi-
leak ez daudela pozik...**

Erreferenduma eskatzen dugu, haser-

*“Gure lurraldea
berreskuratzeko
borrokatzen jarraitu
behar dugu”*

garelako oraingo egoerarekin. Geure lurral-
dea berreskuratzeko borrokatzen jarraitu
behar dugulako. Baina ez

da...

Bai, gero hemengo familiekin kanpamentuak
bisitatzen dituztelako, eta bizi dugun egoe-
ra ezagutzen dutelako. Nazioarteko lagun-
tzak jaso arren, ez dira nahikoa: laguntza
gehiago behar dugu, eta maila guztietan,
gainera. Beste alde batetik, desertuan 60
gradu izaten dira udan, eta horregatik, ume-
entzat oso mesedegarria izaten da bertatik
alde egitea. Horrezaz gainera, mediku-
azterketa egiteko aukera izaten dute hemen.
Umeak hartuko dituzten familia gehiago
behar ditugu hurrengo urterako; parte hartu
nahi duenak bere herriko udaletxean galde-
tu baino ez du egin behar.

Eskolatuta daude umeak?

Gehienak bai. Gaztelera eta gure hizkuntza





Amal, 11 urte

Inoiz ez da Euskal Herrian egon eta bertora heltzeko gogo handia zuen, “hondartza eta zuhaitz asko daudelako. Hemen dena da hobia”. Iaz Galizian izan zen eta egun osoa uretan sartuta ematen zuen. “Azokara ere joaten ginen. Dilistak, indabak, okela, arraina... Dena gustatzen zait”. Amalek Santurtzin pasatuko du aurtengo uda.



Gana, 8 urte

“Hemengo familia ikusteko gogo handia daukat, izugarri maite ditut eta”. Ganak Bermeon ematen du uda, eta oso lagun onak egin ditu bertan. “Igeritokira joaten gara, hondartzara... eta Extremadurara eta Andaluziara oporretan! Bizikletaz ibiltzen ikasi dut, baita euskara ere. Hitz batzuk badakizkit, baina orain ez ditut gogoratzen...”. Heldua denean, medikua izan nahi du.

Lami, 8 urte

Berrizera heltzeko irrikan zegoen, bertan Arkaitz, Migel eta Iker zain zituelako. “Dutxatu, atsedeen hartu eta igeritokira joango naiz lagunekin. Mendira ere joango gara”. Berrizen nahi duen guztia egiten duela dio, “baina ez zait purea gustatzen”. Lami hirugarren kurtsoan dago eta, adierazi digunez, oso ikasle ona da.



“Madrilgo gobernua liderra izan beharko zen deskolonizazio-prozesuan”

Eusko Jaurlaritzak konpromiso aktiboa hartu du saharar herriaren arazoan...

Euskal Herri osoak egin duela esango nuke nik. Herri anaiatzat daukagu, izan ere, antzekotasun handia dago gure artean: saharar herriak bere azken erabakia hartu eta askatasuna lortu nahi du, eta guk ere bai. Horregatik, laguntza eman behar diogu eta, batez ere, politika arloari dagokionez. Duela 14 urte armistizioa sinatu zen, baina nazioarteko komunitateak oraindik ez du ezer egin. Nire ustez, deskolonizazio-prozesuan Madrilgo gobernua liderra izan beharko zen eta duela hilabete batzuk Mallorkan sinatutako deskolonizaziorako hitzarmenean hala eskatu genion Zapaterori.

Beste alde batetik, lurralde okupatuetan ez dago sartzetik; hala ere, bertara bidaiaren bat egiten saiatuko gara astero, ea Europako Erkidegoak arazoa eskutan hartzen duen. Zaila izango da, Kanariar Uharteetatik sartzeko traba handiak jartzen direlako... Ematen du Marokok han eta hemen agintzen duela.

Aaiuneko matxinadak ondorio onik ekarriko du?

Momentu honetan baikor agertzen naiz, Intifada (matxinada) horrek ez du amaierarik izango, helburua lortu arte.



Munduari hurrengo hau adierazteko modua da: gu ez gara terroristak. Herriaren askatasuna bakean lortzen saiatu gara, baina ez dugu inongo laguntzarik jaso eta hartu behar diren erabakia hartzeko eskubidea daukagu; armak badira, armak zein dela delakoa. Herriek beti lortu dituzte euren ametsak, baina herria izaten jarraitu behar dute horretarako. Eta nik horixe esaten diet, herria izaten jarrai dezatela.

Eta askatasun hori helduko da, gaur egun Marokok egoera sozial eta ekono-

“Intifadak ez du amaierarik izango helburua lortu arte”

miko txarra duelako eta ezin izango diolako egoera honi eutsi. Bertako komunikabideetan ere saharar herriaren ahotsa entzuten hasi da.

Zer deritzozu Espainiako jarrerari?

Duela gutxi Leire Pajin Lankidetzako Estatuako idazkariarekin batzartu ginen, eta haren hitzek itxaropen apur bat ekarri zigten. Pajinek adierazitakoaren arabera, Espainiako Gobernuak ez dauka zertan

haserretu Marokorekin, Saharako gaiak konpontzeko; hala ere, arazo horiei irtenbidea emateko deskolonizazioa ezinbestekoa zela adierazi zigun, eta deskolonizazioaren oinarria autodeterminazioa zela. Horrezaz gainera, Mallorkako hitzarmena aztertzeko, Zapaterok laster gurekin batzartzeko asmoa zuela jakinarazi zigun. Eta hori entzuteak poztu ninduen, deskolonizazio hori martxan jartzea delako gure eskaria... Baina, noski, bitartean egoera penagarrian egoten jarraitzen du saharar herriak.

Edozelan ere, Espainiar Estatuak oso jokabide koldarra eduki du orain arte, eta orain ere hitz onetatik esandakoa praktikan jartzera pasatzea eskatzen diegu. Honetan ere antzekotasun handia du Saharako arazoak eta geureak.

“Guztiok saharar umeen egoeraren jakitun egotea oso inportantea da”



Umeak aireportutik herriko pilotalekura etortzen dira orain 10 bat urtetik hona. Zergatik hartu zuen Udalak ardurara hori?

Aireportura heltzen direnetik hartzen dituzten familiarekin elkartu arte ordu asko pasatzen dira eta ordu horiek, aireportuan egin beharrean, pilotalekuan pasatzea pentsatu genuen. Berton gosalitzen ematen zaie eta jolasteko aukera dute. Hobeto daude hemen aireportuan baino.

Ume gutxi gelditu dira Txorierrin, hiru Larrabetzun eta bat Lezaman...

Eta batzuk Erandiora joan dira. Kanpainak egin arren, jendea ez da animatu. Saharar umeek sanitate zein elikadura aldetik gabezia handiak dituzte, eta oso inportantea da guztiok arazo honen jakitun egotea eta geure laguntza ematea. Kanpamentuetatik irten, eta beste errealtate bat ezagutzeko aukera dute hilabete bian, eta hori oso mesedegarria da umeentzat.





Julio San Roman eta Eider Torrijos (Getxoko Aftal elkarteko kideak)

“Umeak enbaxadorerik onenak dira”

Elkartearen xedea?

Saharar herriaren aldarrikapen politiko eta sozialekin bat egiten dugu. Euren lurraldea berreskuratzeko eskubidea dute eta elkartetik ahal dugun guztietan laguntzen diegu: janari-karabanetan, bertako hainbat proiektutan... Umeak hona ekartzea ezinbestekoa da, haiek direlako enbaxadorerik onenak, herri horrek pairatzen duen egoera latza gizarteari eza-gutzera emateko.

Zein egoeratan etortzen dira umeak?

Elikagai-eskasia itzela dute, ez dutelako frutarik, barazkirik edo arrainik jaten, besteak beste. Gamelu okela eta pasta jaten dute.

Beste alde batetik, eta bertako emakumeen lanari esker, ume guztiek lehen mailako osasun-laguntza jasotzen dute, baita oinarritzko hezkuntza ere.

Zer da beharrezkoa ume bat udan hartzeko?

Gogoa, besterik ez. Informazio guztia udaletxeetan eskura daiteke... Eta jendea animatzea behar dugu, gero eta ume



gehiago direlako. Oso esperientzia ona da, baina ez umeentzat bakarrik, baita geuretzat ere. Izan ere, beste kultura eta ohitura batzuk ezagutzeaz gainera, saharar herriaren arazora hurbiltzen gara. Konpromisoa hartzen dugu eurekin.

“Ezer barik zoriontsua izaten irakasten digute”

Zein da umeak hartzen dituzten familien ardura?

Umeak mediku-azterketa egitera eramateen ditugu eta bista eta haginak ere kontrolatzen dizkiegu. Horrezaz gainera, elikadura osasuntsua eta orekatua ematen zaie.

Zortzi urte daramatzazu umeak hartzen, ezberdintasunik nabaritu duzu lehenengo urtetik hona?

Bai, hasiera batean zorritz beteta, elikatu gabe eta txarto jantzita etortzen ziren; gaur egun hobeto ailegatzen dira.


Zer nabarmenduko zenuke esperientziatik?

Onura handia ekartzen digula. Lau neskatok izan ditugu etxean eta azkenak lau urte daramatza gurera etortzen. Seme-alabek konpartitzen ikasi dute eta umea urtero hartzea beharizana da haientzat. Saharar umeak oso maitagarriak dira eta haiengandik asko ikasten da; esate baterako, urik alferrik ez gastatzea. Oso harreman estua sortzen da gure artean; familia bat gara... Lanetik heltzen naizenean “Nekaturik zaude, ama?”, galdeztzen dit saharar alabak... Eta euren herrira joaten zarenean, besoak zabalik hartzen zaituzte eta ahalegin handiak egiten dituzte zuk denetarik izateko. Guk gauza materialak emanez laguntzen diegu, baina euren askoz gehiago laguntzen digute guri, izan ere, ezer barik zoriontsua izaten irakasten digute. Eta, egia esan, oso ume zoriontsuak dira.



Akermari jai giroan murgiltzeko prest!

Abuztuaren 12tik 16ra bitartean, Andra Mari jaiak ospatuko dira Larrabetzun, eta bertako Intxurreta jai batzordeak ekitaldi sorta zabala antolatu du, Udalak lagunduta. “Jai herrikoiak izatea nahi dugu, uritar guztiek parte hartu eta primeran pasatzeko aukera eduki dezaten”. Eta Akermari aparteko anfitrioiak izango da horretarako, “iaz lagun batek sortutako pertsonaia da. Berak bozetoa landu, eta Kukubiltxo antzerki taldeak panpina egin zuen, umeen laguntzarekin”.



Aurtengo andramariak berritasun garrantzitsuak izango dituzte. “Lehenengo aldiz, goitibehera txapelketa egingo dugu Agarre auzotik uriraino. Eta bertoko musika talde bik (Las Furias eta Armada Gorria) kontzertua eskainiko dute”. Horrezaz gainera, Kantuz kantu ekitaldia aurkeztuko dute Sustrai Kolina eta Xabier Paia bertsolariek. “Herriko musikariek kantu zahar batzuk aukeratu, eta bertsolariek publikoari aurkeztuko dizkiote. Abestien hitzak jendearen artean banatuko dira eta musikariekin batera kantatuko ditugu”.

Duda barik, jaietako ekintzarik erakargarrienetariko bat asto lasterketa izaten da, izan ere, larrabetzuar askok hartzen dute parte. “Baita pintxo jana ere! Pintxoak ez dira enpresa edo tabernei enkargatutakoak, bakoitzak etxetik ekartzen ditu eta plater asko batzen da plazan”. Baina egunik bereziena abuztuaren 16a izaten da. “Umeen Eguna ospatzen dugu eta eurentzako hainbat ekitaldi izaten dira egun osoan: buruhandiak, zaldiak, antzerkia... Bazkaria ere egiten da eta ehundik gora ume elkartzen dira”.

Jaiek gune bi edukiko dituzte: plaza eta Andra Mari kalea. “Azken honetan jazz kontzertuak izango dira. Bertan aulki batzuk ipiniko dira, jendeak lasai-lasai egon dadin”. Intxurretakoek ez dute zalan-tzarik, aurtengo jaiak arrakastatsuak izango dira. “Larrabetzuk gauza positiborik badu, hauxe da: jenderen erantzuna oso ona izaten da. Uritarrak jai giroan murgildu, eta ekitaldi guztietan parte hartzen dute”.

Jai egitaraua



Abuztuaren 12a, barikua

20:00: Profesionalen pilota jaialdia, Amarike – Zabala eta Antxia – Altuna

Abuztuaren 13a, zapatua

17:00: Futbol 7 Txapelketako finalaurrekoa eta finala
18:30: Pilota partiduak, Olarreta pilota elkartearen eskutik
21:00: Txupinazoa. Kalejira, Akarmari, txistulariak...
22:00: Odoloste jana, tabernetan
22:00: Umeentzako zinea, plazan
23:30: Kontzertua, Armada Gorria, Las Furias eta Fien Diary taldeekin.

Abuztuaren 14a, domeka

12:00: Txistulariak
12:30: Pintxo dastatzea, plazan
17:30: Goitibehera Txapelketa Lokala (Agarretik)
18:30: Herri kirolak
22:00: Erromeria, Lanpernen Orroa taldea
23:00: Antzerkia. *Pisutxue* antzezlan, Trapu Zaharrak taldearen eskutik
24:00: Erromeria, Lanpernen Orroa taldearekin

Abuztuak 15a, astelehena

12:00: Txistulariak
12:30: Iparraldeko dantzak eta fanfarrea
18:00: Asto lasterketa
19:30: Bertsolariak eta Kantuz Kantu: Sustrai Kolina eta Xabier Paia
21:00: Jazz kontzertua, Diaut Neu Trio taldea
22:30: Erromeria, Tapia eta Leturia taldea

Abuztuak 16, martitzena

11:00: Kalejira, Ondalan taldea. Erraldoiak, buruhandiak eta kilikiak
12:00: Umeentzako jolasak, Kilimixka taldea
14:30: Umeen bazkaria
17:00: Antzerkia. *Zirko Iluna* antzezlan, Hortz Muga taldearen eskutik
18:00: Triatloia
20:30: Funky musika: All Jazz Era taldea
22:00: Kontzertua, Mal de Ojo taldea; erromeria, Izotz taldea

Abuztuak 24a, eguaztena (San Bartolome, Loroño auzoan)

13:30: Bizikleta igoera
14:00: Paella txapelketa
17:00: Briska txapelketa

Emeteriak, Goikolexean

Andramariak ez dira abuztuaren Larrabetzun izango diren jai bakarrik: abuztuaren 30etik irailaren 1era arte, Goikoelexaldeko sanemeteriek hartuko dute txanda. Aurten ere egitarau bikaina antolatu du Intxurreta jai batzordeak. “Ekitaldiak eliza aurrean egingo dira, izan ere, oso leku egokia da guztiok elkarrekin egoteko”.

Abuztuaren 30a, martitzena


20:00: Txupinazoa
21:00: Odolosteak, txorizoa, sagardoa...
22:00: Erromeria, Haitzama taldearekin

Abuztuaren 31a, eguaztena

13:00: Bertsolariak: Xabier Amuriza eta Angel Mari Peñagarikano
17:00: Briska Txapelketa
20:00: Idi probak: Iñaki Lopategi (Mungia), Benito Etxebarria (Lezama) eta Javier Solaguen (Zornotza)
22:30: Erromeria, Ruill-Buille taldearekin

Irailaren 1a, eguena

16:30: Barrenetxera igoera
17:00: Umeentzako jolasak. Mus txapelketa
18:30: Antzerkia. *Joseperen denda* antzezlan, Gorringo taldearekin
21:00: Kantaldia, Maddi Oihenart eta Josetxo Goia-Ariberekin



Andra Mariak 05. Gora Lezamako jaiak!

Urtea azkar pasatu da, eta hementxe ditugu berriro. Irailaren 2tik 9ra bitartean, Lezamako Andra Mari jaiak izango dira eta herritar guztiei zuzendutako egitaraua antolatu du bertako jai-batzordeak, Udalak lagunduta. “Izan ere, lezamarrek ekitaldiez gozatu eta jai-giroan murgiltzea gura dugu”.

Tonino Carotonek zapatuan emango duen kontzertua ekitaldirik erakargarriena izango da, jai-batzordearen ustez. “Oso apustu handia egin dugu, eta jendetza handia batuko delakoan gaude. Gainera, jendea Lezamaraino hurbiltzeko trena daukagu, eta hori abantaila itzela da”. Baina hau ez da kontzertu inportante bakarria izango, “Caridadeko Bentaren emanaldia ere oso ona da; adin guztietako lagunek entzun eta ikusteko modukoa”.

Iazko jaietan, pintxo lehiaketa egin zuten lehenengo aldiz tabernetan eta oso arrakastatsua izan zen. “Aurten ere errepikatzea gura dugu. Beste alde batetik, oso giro ona sortzen da odoloste janaren egunean, izan ere, oso errotuta dugun jaietako ohitura da. Eta herri bazkariak ere itzelak izaten dira! San Antolin Egunean guztiontzako paella egiten da eta Zorritzetan euskara elkarteak bazkaria antolatzen du domekan. Bertan 300 bat lagun batzen gara”.

Aurtengo jaiak luzeagoak izango dira –egun bat gehiago– eta egun berezia ere edukiko dute: irailaren 9a. “Bariku hori Herriaren Eguna izatea dugu helburu. Jaietan jende asko dabil lanean –txandak egiten, hau edo bestea prestatzen...– eta ez

dute astirik jaietz behar bezala gozatzeko... Egun horretan aukera edukiko dute; lezamarrentzako eguna izango da... Azken kartutxoak erretzeko eguna”.

Lezamako jai-batzordea asteazkenetan, arrastiko 8etan, batzen da Gaztelekuan. “Sei pertsonak baino ez dugu osatzen komisia eta laguntza behar dugu eszena-

tokia muntatzeko –Ah! aurten txosnagunean jarriko da, txosnetan txanda egiteko... Ea jendea animatzen den! Datorren urtean jai-batzordea legalizatuko dugu: estatutuak egingo dira, presidentea ere egongo da... Parte hartu nahi duenak deialdiak egiten direnean adi egon dadila edota udaletxean galdetu dezala”.



Zorritzetan elkarteak antolatzen duen herri bazkaria ekintzarik arrakastatsuenetarikoa izaten da

Jai egitaraua

Irailaren 2a, barikua (San Antolin Eguna, Leginan)

12:30: Meza

12:45: Trikitilariak

15:00: Herri bazkaria. Mus eta briska txapelketa

20:00: Txupinazoa

24:00: Berbena Trikizio taldearekin

Irailaren 3a, zapatua

10:30: Kalejira txistulariekin

11:00: Umeentzako jolasak

12:00: Pintxo lehiaketa herriko tabernetatik

16:00: Heiza-bira txapelketa

17:00: Umeentzako jolasak

23:30: Kontzertua: Tonino Carotone eta The Foralettes

Irailaren 4a, domeka

10:30: Kalejira txistulariekin

12:30: Meza

13:00: Musika kontzertua: Gure Herriko Doinuak



Irailaren 4an, Karidadeko Benta taldeak kontzertua eskainiko du

•Euskal Doinuen Moldaketak: Leire Iturrioz (pianoa) eta Iñaki Aretxabaleta (biolina)

•Koru musika: Ekidazu Abesbatza

•Abeslari bakarlaria (Organoak lagunduta)

14:00: Euskal dantzak, Gurutze dantza tal-

dearekin

14:30: Trikipoteoa

15:00: Herri bazkaria

18:00: Herri kirolak

20:00: Kontzertua: Karidadeko Benta

Irailaren 7a, eguaztena

18:00: Umeentzako jolasak

20:00: Trikipoteoa

21:00: Odoloste jana herriko tabernetan

Irailaren 8a, eguna (Andra Mari Eguna)

12:30: Meza

20:00: Gaiteroak. Pilota partidak, Lezamako eskolak antolatuta

Irailaren 9a, barikua

12:30: Meza

13:15: Luntxa jubilatuentzat

17:00: Janeren zaldiak umeentzat

20:00: Pilota partidak, Frontis enpresaren eskutik

21:00: Kalejira Kadum Kadama taldearekin

24:00: Berbena Amaur taldearekin

Pilota partidak ikusteko aukera egongo da



Laiak, Lezamako emakumeen alkartea

“Bardintasunetik urrun gagoz oraindino”

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen da eta Lezamako andra batzuek alkarte bat osatzea erabaki dabe aurtten, egun hori erreferentziatzat hartuta. Holan, Laiak emakumeen alkartea sortu zan martxoaren 10ean. Tere Aiartza presidenteak proiektu horren barri emon deusku.

*Testua eta argazkiak:
Jabi Agirre eta Lurdes Prudencio*



Nondik hartu dozue Laiak izena? Zer esanahi dauka?

Laia baserrian lurra lantzeko erabiltzen dan tresna bat da eta alkarterako izen egokia izan eitekeala pentsatu genduan.

Zenbat emakumek osatzen dozue alkartea? Zein adinetakoak?

Momentu honetan, berrogeita hamahiru gagoz, baina taldea osatzen gabiltza oraindino. Eta hamazortzi urtetik gorako gura daben emakume guztiek parte hartu leikie gurean. Ez dago adin-mugarik.

Badago parekorik Txorierrin? Harremanik badozue?

Zamudion eta Derion badagoz elkarteak, baina gure taldea sortu barria da eta ez gara oraindino alkartu.

Zein izan zan hasierako motibazioa taldea osatzeko?

Lezaman hainbat tailer egiten dira: eskulana, bolilloak, gimnasia... Ikastaro horreetan izena emon dogun batzuk pentsatu genduan geuk hareen ardura hartuko bageunke merkeagoak urten leitekezela, eta holan hasi ginan. Horrezaz ganera, Lezaman ez egoan emakume talderik, eta Laiak osatzea erabaki genduan hutsune hori beteteko.

“Hamazortzi urtetik gorako gura daben emakume guztiek parte har leikie alkartean. Ez dago adin-mugarik”

Zeintzuk dira zuen helburuak edo jomugak?

Laiak talde legala da eta hiru arlo jorratzen doguz bertan: aisialdia, gizarte-gaiak eta kultura. Urrian berbaldi batzuk emongo

*“Hiru arlo jorratzen
doguz: aisialdia,
gizarte-gaiak eta kultura”*

*“Euskera lantzen eta
zabaltzen ahalegintzen
gara ekitaldietan”*

dira eta abokatu bat be etorriko jaku laster...

Zeuek prestatzen dozuez gaiak?

Bai. Alkarteko kideen artean inkesta bat zabaldu dogu, zein gai edo arlo jorratu gura daben jakiteko. Lehen aitaturtako abokatuak Emakumeak eta oinordetza zuzenbidea berbaldia emongo deusku eta irudi pertsonalaren gaineko berbaldi bat be izango dogu. Irailean, Guggenheim edo Bilboko Arte Ederretako museora joango gara eta Galdakaoko Ostalaritza Eskola bisitatzeke asmoa be badaukagu. Eta urrian, libururen bat leidu, eta literatura-tertuliaren antzeko bat egingo dogu, irakasle batek lagunduta. Beste alkarteetan be horrelakoak antolatzen dira, antza.

Zenbat lagun zagoze batzordean?

Sei pertsonak osatzen dogu: presidentea, presidenteordea, diruzaina, idazkaria eta bokal bi.

Nondik jatortzuez zuen eginkizunak atarateko behar diran diru-iturriak?

Bazkideak ordaintzen daben kuotatik bost euro kobratzen da matrikula moduan, eta urtero 10 euro ordaindu behar da. Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntza eskatzeko asmoa daukagu, deialdia zabaltzen dabenean, eta Udalari eta Emakunderi be eskatuko deutsegu. Beste alde batetik, taldea legalizatzeko derrigorrezkoa zan egoitza soziala izatea

Berrogeita hamahiru emakumek osaten dabe Laiak alkartea



eta eskulanak egiten diran lokala hartu genduan, besterik ez egoalako. Batzordekoak astelehenero lotzen gara bertan, izan be, lan handia egin behar dogu oraindino.

*“Gauzek aurrera egiteko
ezinbestekoa da
emakumeok geure
alde batzartzea”*

Eta nola zabaltzen duzue alkartearen gaineko informazioa?

Kartelen bidez emon dogu taldearen barri, baita ahoz aho be. Baliabide gitxi daukagu eta jentearen laguntasunaz baliatzen gara informazioa zabaltzeko. Informazio hori

bazkide guztiei bialtzen jakie, eskuz bananduta. Agerraldiak zabalak dira eta euskera lantzen eta zabaltzen ahalegintzen gara ekitaldietan.

Gaur egungo emakumeak alkartzeko beharizana badago oraindino be?

Bai, ez dogulako bardintasunik lortu esparru guztietan. Asko falta jaku oraindino, eta gauzak aurrera egiteko ezinbestekotzat jotzen dot emakumeok geure alde batzartzea. Gai batzuei jagokenez, bardintasunetik urrun gagozala uste dot.

Emakumeen Mundu Martxa Euskal Herritik pasatu da orain dala gitxi. Zuek badozue aldarrikapen feministarik?

Berbaldi bat antolatuko dogu bakazinoen ostean: Bolibian egon dan neska batek bertako emakumeen egoeraren barri emongo deusku.

Victor Artiñano eta Fina Gato, Miamendi nekazalturismoko etxearen jabeak

“Gurea bost izarreko hotel txikia bihurtzea nahi dugu”

Pasa den urteko irailean, Victorrek eta Finak Miamendi nekazalturismoko etxea ireki zuten Legina auzoan (Larrabetzuko). Oso negozio berria da oraindik, baina bezeroek oso gogokoa dute leku hori, izan ere, etxean baino hobeto ez da inon egoten.



Zergatik ireki nekazalturismoko etxe bat Larrabetzun?

Orain hamar bat urte lurra erosi eta berotegiak ipini genituen bertan. Baina etxebizitza behar genuen eta nekazalturismoko etxea irekitzea otu zitzaigun: alde batetik, baserriko jardueraren osagarri izango zen eta, bestetik, etxebizitza lortzen lagunduko zigun.

Igeltserotza eta zurgintza lanak izan ezik, beste behar guztiak zeuek egin dituzue. Zeren bila ibili zarete?

Etxeari baserri-kutsua eman nahi genion eta, horretarako, ardura handiz zaindu dugu eraikinaren estruktura: egurra erabili dugu eta bi isurialdeko teilatua eraiki da, besteak beste. Baina modernitatearen bila ere ibili gara eta logela bakoitzak telebista, telefona, Internet, aire girotua eta zoru erradiatzaileko berokuntza ditu. Horrezaz gainera, elbarrientzat egokitu dugu logela bat. Eta Q kalitate-ziurtagiriak ezartzen dituen arauei jarraitu diegu, izan ere, gurea bost izarreko “hotel txikia” bihurtzea nahi dugu.

Etxearen apainketa lanak ere geuk egin ditugu, eta logela bakoitzari estilo propioa



Kataluniar askok hartzen dute atsedena Miamendin

eman diogu. Baserri-giroa eta modernitatea uztartzen saiatu gara, leku eroso sortzeko eta bezeroak euren etxean bezala egoteko.

Eta zer eskaintzen diezue bezeroei?

Kalitatea, baina arlo guztietan: bai tratuari dagokionez, bai ematen zaizkien produktuei dagokienez. Lehen esan dugun moduan, euren etxean bezala egotea nahi dugu eta horretarako, oso tratatu atsegina ematen saiatzen gara. Eta etxeko janaria ere prestatzen zaie. Produktu guztiak

“Baserri-giroa eta modernitatea uztartzen saiatu gara, leku eroso sortzeko eta bezeroak euren etxean bezala egoteko”

“Bertoko produktuen saldu eta dastatzeko zerbitzua ere eskaintzen dugu”

ardura handiz aukeratzen ditugu, beti kalitaterik handiena exijituz eta eskainiz. Horrela, bada, Miamendik kalitatea adieraztea nahi dugu.

Kalitate hori zuen berotegietatik ere badator...

Bai, letxugak, piperrak, tomateak, pepinok, lekak eta indabak ekoizten ditugu bertan, eta produktu horiek guztiek Euskal Labela dute. Horrezaz gainera, bertoko produktuak saldu eta dastatzeko zerbitzua ere eskaintzen dugu. Nahi duten guztiak sotoraino hurbil daitezke produktu horiek dastatzera: momentu horretan ditugunak eskainiko dizkiegu eta, zerbait berezirik nahi izanez gero, aldeztu aurretik abisatuko balute, eskertu egingo genieke. Izan ere, nahiago dugu merkantzia batzuk —okela, arraina...— hornitzaileei momentu puntualerako baino ez eskatu, horrela kalitaterik handiena ematea lortzen dugulako.

Zein eratako bezeroak dituzue?

Gehienak Parke Teknologikoko langileak dira. Kanpotik datoz eta tratatu atsegina eta kalitatea nahi dituzte. Beste alde batetik, atsedena hartzea ere etortzen da jendea, eta Aste Santuan eta jaiegunetan baterik edukitzen dugu etxea. Bezerorik gehienak kataluniarak izan dira. Miamenditik oso pozik alde egin dute eta gu ere oso pozik gaude.

Bertsoak enkargura egiteko zerbitzua sarean

Txatxilipurdi elkarteak Bertsojartzaile zerbitzua zabaldu du www.txatxilipurdi.com web orrialdean. Proiektu horren bidez, hainbat helburu landu nahi dituzte: bertsoen erabilera sustatzea, bertsolaritza eza gutzen ez dutenei hurbiltzea, eta euskaraz bizitzeko aukerak zabaltzea.

Bertso pertsonalizatuak enkargura egiteko zerbitzu bat da Bertsojartzaile, eta interesatuak bertsoaren ezaugarriak zehaztu beharko ditu bertan: zeri buruzkoa izan behar den, nori zuzenduta dagoen, zein bitxikeria aipa daitezkeen... Eskatera bertsojartzaile@txatxilipurdi.com helbidera bidali behar da, eta bertsoa 72 orduko epean jasoko da. Bertso bakoitzak

5 euro balio du, eta bat baino gehiago eskatuz gero, deskontua egingo da.

Elkarteak Txatxirrita ezizena jarri dio zerbitzua ematen duen bertsolariari, eta web orrialdean bertan dituztu eskura beraren lan guztiak. Horrez gain, zenbait bertso estandar ere esketuz dituzte.



Dendetarako eta ostalaritzarako programak euskaraz



Merkataritzan hainbat dokumentu eta tresna erabiltzen dira jarduerak kudeatzeko: fakturak, albaranak, asteko planning-a, biltegiaren kontrola, kutxa erregistratzailerak... Kataluniako Ibernyx SLenpresak lan horiek guztiak biltzen dituzten programa informatikoak diseinatu ditu, eta duela gutxi euskaraz kaleratu ditu programa horiek, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lagunduta.

Ibernyx enpresak eskaintzen dituen aplikazio informatikoak dira: 'Ostalaritza', 'Etxera eramateko' zerbitzua, 'Diskotekak', 'Dendak (orokorra)', 'Dendak (fakturazioarekin)', 'Okindegiak eta gozotegiak', 'Neurria eta kolorea', 'Ileapaindegiak eta estetika', 'Hotelen kudeaketa integrala' eta 'Etiketak'. Softwareari eragiteko, ukipen-pantaila, sagua eta teklatura erabili daitezke, eta jarduera bakoitza aurrera eramateko behar den guztia topatzen da bertan.

Mamutxen Eremua, sakelako telefonoetarako euskarazko jolasa

Animatu enpresak Mamutxen Eremua atera du merkatura, sakelako telefonoetarako euskarazko lehen jolasa. Mamutxak izaki mitologikoak dira — Tartalo, Basajaun, Lamiak... —, eta jokalariai topatu beharko ditu beste pertsonaia batzuen laguntzarekin. Aurkituz gero, argazkia atera beharko die.

Jolasa eskuratzeko, SMS bat bidali behar da 7505 zenbakira EREMU hitza idatzita. (Jolasaren kostea: 3 SMS. Mezu bakoitzak: 0,90 € + BEZ).

www.agiriak.net

Artez Euskara Zerbitzuak euskarazko fondoak osatu du eguneroko harremanetan baliagarriak diren dokumentu eta inprimaki estandarrekin www.agiriak.net web orrialdean, euskararen normalizazioa iritsi dadin. Dokumentuak erraz deskargatzeko aukera emateaz gainera, enpresen inprimakiak ere pertsonalizatzen ditu zerbitzu horrek.

Sexismoa euskal musikan?

Euskal kantuen hitzak aztertzerakoan, batez ere musika folklorikoan eta herrikoian, emakumea bigarren mailan edo baztertuta geratzen da batzutan. Bestalde, hamar hogeit hamar urte atzerantz eginez, askotan hitzon ortografia zaharkituta geratu da gaurkotik begiratuta. Ondo legoke, edo onargarria litzateke, aldaketarik egitea gaurkora egokitzeke? Ala, dauden bezala utzi behar dira jatorrizkoa errespetatuz?

Sasoian sasoiko arrazoiak dira askotan, gizartearen pentsamoldearen ispilu ere bai beharbada, edo inportantzia gabeko disinkronia txikiak, edo egilearen nortasunaren adierazgarri... Edozelan ere, bizitzako beste arlo askotan gertatzen den bezala, hemen ere polo biko jarreraren dialektika aurkitu dugu.

Har dezagun abesti oso ezagun eta enblematiko bat, une berezietan kantatzen dena: “Agur Jaunak, Jaunak agur, agur t’erdi...” Musikaren eta hizkuntzaren azterketa sakonik egin gabe, argi dago agurtzen direnak gizonak zein emakumeak izaten direla. Zer egin behar da?

Ansorena txistulari eta musikari oporak honela kantatu behar dela esaten du: “Agur Jaunak, Jaun-andreak, agur t’erdi...”, eta horrela egiten dute Donostiako Aste Nagusian Kostitutzio Plazan. Juan Luis Goikoetxea euskara irakasleak beste hau proposatzen du: “Agur Jaunak, Andreak agur, agur danak...”, gaurko berdintasun ahaleginera etorri behar dugulakoan. Beste askok eta askok, oster, abesti horren letrarik txikiena aldatzea sakrilegiotzat hartuko lukete.

Har dezagun beste abesti esanguratsu bat, *Txanton Piperri* operatik hartuta: “Euskalerriko semeak gara...”.

Bego Goikoetxea koru abeslariak, dio: “...ez naiz ondo sentitzen hori horrela abestean; zergaitik ez abestu Euskalerriko seme-alabak...” Koru-zuzendari lagun batek, oster, zera adierazten du: “Zapirain lekitiar egilearen espiritua muskilduko litzateke hori egin ezker eta, gaia luzatuz, uste dut beti bertsio orijinalak errespetatu behar direla”.

Gaia horrela planteatuta, Eresbil Musikaren Euskal Artxibora jo dugu dialektika honetan parte har dezan. Han arti-



Beatriz Balerdi, Eresbilgo artxibo-teknikaria

kulu dugu Beatriz Balerdi artxibo-teknikaria. Labur-labur haxe da bere iritzia: “Orokorrean ezin dut esan euskal musika sexista denik, ez dakit. Abesti batzuk bai, seguru, gure ingurua ere horrelakoa delako eta uste dut musikarekin berdin pasatuko dela, ipuinekin eta beste kontu batzuekin gertatzen den moduan. “Euskalerriko seme-alabak...” abestea kasu honetan historikoki zuzena da, partitura orijinalan emakumeek “alabak” eta gizonen “semeak” esaten dutelako, gaur egunero beste modu batera heldu den arren. Orokorrean argi dago gauzak aldatzen ari direla. Bakoitzak bere aukera egiten du, batzuk puristago besteak aldaketa zaleago... Ni ez naiz oso purista, baina badakit musikari askok ez luketela onartuko. Bestalde, alda-

tzearen aldeko izan arren, aspektu historikoak errespetatzea ere inportantea da. Aukeran ematea ere ez litzateke gaizki egongo, agian erabilerak berak bidea markatuko luke-eta. Edozein kasutan debatea oso interesantea da. Ortografiarena ere praktikotasun aldetik inportantea da. Nik gaurko autoreei eurei galdetuko nieke, J.M Beltrani, J. Bustori...” Horixe egingo dugu, hurrengoan.

Testua eta argazkia: Pospolin

Eta, irakurleok, zein da zuon iritzia? Gura baduzue, jaten eman eztabaida honi gure helbide elektronikora idatziz: aikormusika@yahoo.es

Iraganari begira Larrondon

Etengabeko aldaketetan murgilduta bizi gara eta atzera begiratzea komeni da batzuetan. Eta horixe, hain zuzen ere, egin zuen Iñaki Ladislao 75 urteko larrondotarrak Larrondoko Kultur Etxean pasa den ekainean. Bertan izan genuen hizlari.

Gerrarekin gogoratuz hasi zuen hitzaldia. Garai hartan, hegazkinak bonbardatzen pasatzen zirenez Txorierriatik, Larrondoko auzokide batzuek babeslekuak eraiki zituzten etxeen ondoan. Beste batzuk, berriz, gardia hartu, eta nora ezean ibiltzen ziren egoera apur bat baretu arte. Orain Renault enpresa dagoen lekuan kartzela bat altxatu zutela azaldu zuen Iñakik. Geroago, ospitale militar bihurtu zen.

Gerraren osteko garaia ez zen hobia izan. Gabezia handiak zeuden arlo guztietan, eta elkarren laguntza ezinbestekoa zen aurrera egiteko. Larrondon ez zegoen lantegirik: gizon batzuk Bilboko portuan ibiltzen ziren lanean, baina gehienek baserriak ematen zuenetik ateratzen zuten bizimodua. Lehenengo lantegia —Curtidos— 1951. urtean zabaldu zen Larrondo Bekoan. Enpresa horri esker, jarri zen elektrizitatea alboko baserrietan eta gizon eta emakume askok lana topatu zuten bertan. Sei urte beranduago, Olarra lantegia martxan jarri, eta auzoa industrializatuz joan


“Gune berde ugari zeuden bertan, eta trenak bete-beterik etortzen ziren Larrondoko presara Bilbotik”

zen. Baina, nahiz eta gezurra dirudien, Larrondo ez da beti industrialdea izan. Antzina, gune berde ugari zeuden bertan, eta trenak bete-beterik etortzen ziren Larrondoko presara Bilbotik. “Ura garden-gardena zen eta bainua hartzen genuen... Eta karramarroak eta muskuiluak ere harrapatzen genituen”.

Ladislao esandakoaren arabera, larrondotarrek lotura handia izan dute kirolarekin, eta Loiuko futbol zelaia egin aurretik, beste bi egon ziren auzoan. Bata Artetxe landetan zegoen eta Bilboko La Unión futbol taldeak entrenatzen zuen bertan. Bestea aireportuko dorrea dagoen lekuan zegoen eta hareazko zelai hartan Larrondoko jaiak ospatzen ziren urtero.

Parrandazaleak ere baziren larrondotarrak. “Zapatuetan Bilboko gaztelekura edota Txorierriko erromerietara joaten ginen. Eta domeketan txikiteoan eta abesten ibiltzen ginen Markaida tabernatik eta Luzioren-etik”. Taberna biak desagertuta daude gaur egun.

Ladislao Larrondoko historia errebasatu zuen Kultur Etxean



Eta aireportua ailegatu zen. Eta, harekin batera, hainbat eta hainbat galera: Gaztañaga Goikoa eta Behekoa baserriak, Uribe baserria, eskola... Eta auzokideek beste leku batean topatu behar izan zuten bizilekua. Aireportuak kalte handia ekarri zion Larrondo auzoari: horretan entzule guztiak etorri ziren bat.

Testua eta argazkia: Itziar Mateos

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Kalabazin krema

Osagaiak 6 lagunentzat:

- Kalabazin handi bat
- Gaztai atal bi (portzinozkoak)
- Porru bat
- Kinpula erdi
- Zanahori bat
- Oliba orioa
- Gatza

- Baso erdi ur
- Patata bat

Prestatzeko era:

Ura irakiten ipini. Irakiten dagoela osagai guztiak bota txikituta. Gero gatza eta hiru koilarakada orio bota. Euki egosten hogei minutu inguru, eta ostean, minipimerragaz edo, ondo triturau. Atara mahaira eta jan bildur barik. Sasoi honetan ortuan kalabazin ugari dago, berde zein zurixka, janari arina eta osasungarria da eta ez jatzuz belarriak handiagoak haziko. On egin!



Mari Tere Onaindia

Marrubiak laranja-uretan


Osagaiak

Marrubiak
3 laranjen zukua
Azukrea
Koilarakada txiki 1 sagar-ozpin

Prestatzeko era:

Marrubiak garbitu, eta xerratan ebakiko ditugu. Erretilu batean gordeko ditugu. Azukrea eta laranja-ura nahastu, eta koilarakada txiki bat sagar-ozpin botako dugu. Nahasketa hori ondo irabiatu, eta marrubiei gehituko diegu. Jan aurretik, jalkitzen utziko dugu.

www.sukaldeon.org



LIBURUAK

NAGUSIEN SAILA

Dragoien orroa

Fernando Morillo

Aitortza

Abelin Linazisoro

Bihotz gosetien kluba

X. Mendiguren

Gure etxeko kontuak

Natalia Ginzburg

HAUR ETA GAZTE SAILA

Sugedorria

J.K. Igerabide

Armiarma zuhaitzean

A. Kazabon

Munduko ibaien poemak

J.K. Igerabide

Groau!

Y. Arrieta

Pirtzina zilborrean

Antton Kazabon

MUSIKA

Alerta bihotz

Che sudaka

Gelditu denbora

Ken Zazpi

Cosmopolitan life


Al di Meola, Leonid Agutin

Dreaming wide awake

Lizz Wright. Blues, gospel, jazz eta soul abeslariak Neil Young, The Beatles, Joe Henry eta beste batzuek ospetsu egindako abestiak lantzen dauz album hone-tan

DENBORA PASA

LETRAZOPA



Aurki itzazu goiko letra-zopan 2004. urtean zehar **AIKOR!** aldizkariaren porta-da izan diren **7 pertsona- iaren izenak**. Erantzuna jakin nahi baduzu hurren-go aldizkarian agertuko da.

Ezkerraldean Aikor! 39. zenbakiaren letrazoparen erantzuna. Txorierriko 7 mendi izen.



Antzerkia eta filmak

Sondika. *Mambrú*, Makerliñe taldearen eskutik. Irailaren 23an, 18:30ean, Kultur Etxean.

Larrabetzu. *Solas* antzezlan, Arriaga antzokian. Sarrerak salgai egongo dira irailaren 12tik 27ra, liburutegian.

Erakusketak

Larrabetzu. *Hire Himalaya*. Irailaren 19tik 30era, Anguleri kultur aretoan.

Ikastaroak

Sondika. Musika, pintura, altzari eraberri-tzea, sukaldaritza, apainketa eta barne-diseinua, irudi digitala... Izena emateko epea: irailaren 6tik 9ra arte, liburutegian.

Derio. Eskulangintza, zeramikagintza, pintura, irratia eta aeromodelismoa. Izena emateko epea: irailaren 20tik aurrera, Udaletxean.

Lezama. Euskal dantzak, areto-dantzak, aerobic, zur-lanketa, pathwork... Izena emateko epea: irailaren 12tik 23ra arte, liburutegian.

Larrabetzu. Yoga, gimnasia, eskulanak, informatika, sukaldaritza... Izena emateko epea: irailaren 12tik 21era arte, liburutegian.



Irteerak

Zamudio. Aizkorri, Arroeta mendi taldeak antolatuta. Abuztuaren 7an.

Bisaurin, Arroeta mendi taldeak antolatuta. Irailaren 9tik 11ra.

Ason ibaia, Arroeta mendi taldeak antolatuta. Irailaren 25ean.

Larrabetzu. Biarritzeko akuarioa, irailaren 20an, 08:00etan. Izena emateko epea: irailaren 15ean.

Jaiak

Sondika. Santa Kurtze jaiak, irailaren 16tik 18ra bitartean.

Derio. San Esteban jaiak, abuztuaren 3a.

San Migel jaiak, irailaren 23tik urriaren 2ra.

Derio eta Zamudio. Santi Mami jaiak, abuztuaren 16tik 18ra.

Lezama. Andramariak, irailaren 2tik 9ra.

Larrabetzu. Andramariak, abuztuaren 12tik 16ra.

San Bartolome, abuztuaren 24an.

Emeteriak, abuztuaren 30etik irailaren 1era.

Gazte Eguna, uztailaren 27tik 30era.

Bestelakoak

Sondika. Autorik gabeko Sondika: ingurugiro tailerrak, jolas parkea, txirrindulari ibilaldia... Irailaren 22, 17:00etatik aurrera, Sabino Arana kalean.

Lezama. Mugikortasunari buruzko ekitaldiak. Irailaren 21ean.

Larrabetzu. Mugikortasun Astea: erakusketa, patinatze ikastaroa, jaialdia... Irailaren 16tik 22ra.